



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSA-OHARRA

BIZKAIKO BATZAR NAGUSIEK WEBGUNEA BARRITU DABE, GARDENTASUNA ETA IRISGARRITASUNA HOBETZEKO

- **Diseinu barria garbiagoa eta intuitiboagoa da, eta aurrekoaren informazio guztia eta edozein gailu digitaletara egokitu ahal izateko funtzionalidade barriak barru hartzen ditu.**

(Bilbon, 2022ko bagilaren 21ean). Bizkaiko Batzar Nagusiek daborduko jarri dabe martxan euren webgune barria (www.jjggbizkaia.eus), erakundearen gardentasuna eta herritarren eta euren jardueran interesa daukien guztien irisgarritasuna sendotzeko helburuagaz. Tresna barri horri esker, bere posizionamendu digitala hartzaile objektibo guztientzat eguneratu ahal izango dau, eta, holan, parlamentu-arloko erreferentziazko erakunde moduan dauen erakunde-irudia irudi digitalagaz lerrokatuko dau.

Gunearen domeinua ez da aldatuko, baina bai bere itxurea. Diseinu garbiagoaren eta intuitiboagoaren bidez, Bizkaiko herritarrek Foru parlamentuaren jarduera historiko guztia aurkitzeko gunea izango dabe, baita legealdiak aurrera egin ahala txertatuko diran euki barriak be.

Webgune barria hainbat erespide kontuan hartuta diseinatu da, erabilgarritasunetik eukiaren optimizaziora, gaur egun ezinbestekotzat jotzen diran elementuetatik igaroz, horreen artean, “responsive” webgunea izatea, hau da, gailu guztietan erabilteko modukoa: tabletak, smartphoneak, ordenagailuak, etab. Bisitariaren ikuspegitik, nabegazino intuitiboa ahalbidetzen dau eta, batez be, erabiltzaile bakotxarentzat interesgarria dan informazioa arin aurkitzea errazten dau.

Webgunea atal handien inguruan egituratzen da: Erakunde-jarduerak, Ondarea, Gardentasunaren Ataria, Herritarren Ataria, Bardintasuna, Gaurkotasun politikoa eta kulturala daben albisteak, Bisitak Gernikako Batzar Etxera, Kontratazio Publikoa, batzordeen eta osoko batzarren zuzeneko emonaldiak... Atal horreek aurreko webgunean be baegozan, eta laster beste euki berezi batzuk gehituko jakez, horreen artean, munduan zehar banatu diran 400 “Gernikako Arbola” baino gehiago hazten diran lekuak ezagutzea, edo “Artea Batzar Nagusietan” izenagaz parlamentuaren egoitza desbardinatuko (Bilbo, Gernika, Abellaneda eta Gerediaga) artelanik esanguratsuenak barru hartuko dituan kultur ibilaldi interaktiboa egiteko aukerea.

Plataforma barria martxan jaratearen helburua, Ana Otadui Biteri Bizkaiko Batzar Nagusietako lehendakariaren berbetan, “gizarteari leku komuna zabaltzea da, gure



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

eginkizun nagusiagaz, hau da, foru-arauak onartzea eta Bizkaiko Foru Aldundiaren jarduera kontroletea, zerikusia dauen guztia eskura izan daian, gure egoitza historikoak manteniduteagaz eta zabaltzeagaz lotutako alderdi kulturalago hori ahaztu barik”.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

LAS JUNTAS GENERALES DE BIZKAIA RENUEVAN SU PÁGINA WEB PARA MEJORAR LA TRANSPARENCIA Y ACCESIBILIDAD

- **El nuevo diseño, más limpio e intuitivo, incorpora toda la información de la anterior y nuevas funcionalidades para adaptarla a cualquier dispositivo digital.**

(Bilbao, a 21 de junio de 2022). Las Juntas Generales de Bizkaia han activado ya su nueva página web (www.jjggbizkaia.eus) con el objetivo de afianzar la transparencia del parlamento foral y la accesibilidad de la ciudadanía y de los diferentes públicos interesados en su actividad. Esta nueva herramienta permitirá actualizar su posicionamiento digital para todos los públicos objetivo con los que trabaja, y alineará así su imagen como institución referente en el ámbito parlamentario con su imagen digital.

El dominio del sitio no cambia, pero sí su aspecto. A través de un diseño más limpio e intuitivo, la ciudadanía de Bizkaia contará con un espacio donde encontrar toda la actividad histórica de la Cámara foral, así como nuevos contenidos que se irán incorporando a medida que avance la legislatura.

La nueva web ha sido diseñada teniendo en cuenta múltiples criterios que van desde la usabilidad hasta la optimización del contenido, pasando por elementos que actualmente se dan por hecho como ser web “responsive”, es decir, adaptable en todos los dispositivos: tabletas, móviles, ordenadores, etc. Desde la perspectiva del visitante permite una navegación intuitiva y, sobre todo, facilita la localización rápida de la información de interés para cada persona usuaria.

El sitio se configura en torno a grandes apartados: Actividad Institucional, Patrimonio, Portal de Transparencia, Portal de la Ciudadanía, Igualdad, Noticias de Actualidad política y cultural, Visitas a la Casa de Juntas de Gernika, Contratación Pública, emisiones en directo de comisiones y plenos... Son apartados que ya aparecían en la web anterior, a los que se sumarán pronto otros contenidos especiales como, por ejemplo, conocer el lugar donde crecen los más de 400 “Árboles de Gernika” que se han repartido por el mundo, o la posibilidad de hacer un paseo cultural interactivo bajo el nombre “Arte en las Juntas” en donde se incluirán las obras de arte más significativas de sus distintas sedes parlamentarias (Bilbao, Gernika, Abellaneda y Gerediaga).



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

El objetivo de la puesta en marcha de esta nueva plataforma es, en palabras de la Presidenta de las Juntas Generales de Bizkaia, Ana Otadui Biteri, “abrir a la sociedad un lugar común en el que tener acceso a todo aquello que tenga que ver con nuestra misión primordial que es aprobar las normas forales y controlar la actividad de la Diputación Foral de Bizkaia, sin olvidarnos de ese aspecto más cultural que va ligado al mantenimiento y difusión de nuestras sedes históricas”.